

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

GOSEA SENDA DAITEKE

Gosea senda daiteke. Lelo hori erabili zuen, 2014ko azaroan, *Bizkaiko Janari Bankuak* Gabonei begira elikagaiak biltzeko egin zuen kanpainan. Azken bi urteetan, Bizkaiko Txorierriko (Asua bailara) herri guztietan sortu dira janari-bankuak. Haiei esker, jateko aukera izaten dute egunero hainbat familiak. Janari-bankuen arduradunekin hitz egin dugu, eta zerbitzu horren nondik norakoak azaldu dizkigute.

Ainhoa Olaetak eta haren kuadrillakoek gestionatzen dute zerbitzua Loion. «Iazko abenduan, poteoan genbiltzala, behartsuei buruz hasi ginen hitz egiten. Laugarren garagardorako desagertuta geneukan gosea mundutik, eta *Danontzat* elkarteak sortzea erabaki genuen orduan». Martxoan hasi ziren janaria banatzen, Larrondoko frontoian, eta horri esker jasotzen dituzte gaur egun bederatzi familiak elikagaiak.

Derion ere sortu behar izan zuten elkarte bat janari-bankua gestionatzeko: *Derioko Elikagaien Elkarte Solidarioa* (DEES). 2014ko urtarrilean jarri zuten zerbitzu hori abian, eta, guztira, 130 pertsonari ematen diete laguntza. «Ia 6.000 biztanle ditu Deriok, eta badago beharrezana. Janari-bankuak 40 familiari baino gehiagori ematen die zerbitzua. Asko da hori» dio DEES elkarteko presidentek. Deriora heltzen den janaria ez da nahikoa eskariari erantzuteko; eskaintza osatzen saiatzen dira, beraz, Derioko lagunak. «Duela gutxi *Esnetik* kooperatibak produktuak bidali dizkigu. Aurreko Gabonetan, saski bat zozketatu zuen *Ipar-Alde* abesbatzak, baina irabazlerik egon ezenez, saskiko produktuak eman egin zizkiguten. Oso solidarioa da jendea, eta hori pozgarria da guretzat. Esate baterako, *Bizkaiko Janari Banku*tik lau kilo jasotzen badira pertsonako, lau kilo eta erdi edo bost kilo eman ahal diegu...».

Sondikan, hiru taldek daramate janari-bankua: *Goraintzaileak* dantza-taldeak, *Caritasek* eta *Andre Mariaren Misiolari Frantziskotarrek*. «Ekainean hasi ginen elikagaiak banatzen elizaren alboan dagoen lokalean», esan digu arduradunak. Sondikan ere ez da elikagai nahikorik jasotzen, eta herriko janari-bankuak kanpaina batzuk eramaten ditu aurrera bere aldetik.

Txorierriko lehenengo janari-bankua Lezaman jarri zen martxan 2013ko udan, jubilatuen elkartearen eskutik. Lehen, *Caritas* elkarteak ematen zuen zerbitzua. «Parrokiako batzar batean sortu zen gaia, eta Bego Intxaurbek, Mari Carmen Bilbaok eta hirurok hartu genuen proiektua aurrera eramateko ardura», esan digu Mariasun Oleagordiak. Lezaman, 10-12 familiak jasotzen dute janaria Udaletxeko beheko lokaletan. Askotan, jasotakoa ez da nahikoa izaten, eta elkartekideek beren poltsikotik betetzen dituzte zuloak. Herritarrengana ere jotzen dute, janariaz gainera, garbitasuneko eta higieneko produktuak ere lortzeko.

Zamudiori dagokionez, *Lagunandre* elkarteko sei taldekidek gestionatzen dute zerbitzua. 2014ko apirilean jarri zen abian janari-bankua, eta 40 familiari banatzen diete janaria gaur egun *Caritasen* lokalaren alboan, eliza ondoko aparkalekuan. Zamudion ere egiten dira kanpainak, biltzen diren elikagaiak osatzeko.

Larrabetzun, 2014ko urtarrilean eman zioten hasiera janari-bankuari, eta *Gure Etxea* jubilatuen elkarteak da haren gestorea. Guztira, 11 familiari ematen diete janaria, eta elkartean bertan banatzen da janaria, eskola ondoan. Karmele Etxebarriari hiru lagunek laguntzen diete janaria jasotzen, sailkatzen eta banatzen. «Zaila da herri txiki batean eskatzea», dio Karmelek. Zaila da, bai, baina gosea senda daiteke horrela.

<aikor.com>. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer da *Gosea senda daiteke?*

- a) Kanpaina berrietan zabalduko duten mezua.
- b) Janari-bankuaren azken bi urteetako leloa.
- c) Kanpaina baten izena.

2. Nori bururatu zitzaion Loiuo bankuaren proiektua?

- a) Lagun-kuadrilla bati.
- b) Herriko behartsuei.
- c) *Danontzat* elkarteari.

3. Nori ematen dio zerbitzua Derioko bankuak?

- a) Elkarte bati.
- b) Ehun eta hogeita hamar herritarri.
- c) Txorierri osoari.

4. Zer gertatzen da Derion?

- a) Janari-eskaria txikia dela.
- b) Bankutik nahikoa jasotzen dutela.
- c) Bankuaz gain, beste batzuek ere laguntzen dutela.

5. Zein da Sondikako egoera?

- a) Hiru talde arduratzen dira bankuaz.
- b) Nahikoa dute eskariari erantzuteko.
- c) Elizak gestionatzen du bankua.

6. Lezaman, nork jartzen ditu falta diren janariak?

- a) Elkartekoek.
- b) Familiek.
- c) Udalak.

7. Nork gestionatzen du Zamudioko bankua?

- a) *Caritasek*.
- b) Zamudioko Elizak.
- c) Elkarte bateko kideek.

8. Nola gestionatzen da Larrabetzuko bankua?

- a) Eskolaren bitartez.
- b) Janaria batuz, sailkatuz eta banatuz.
- c) Hamaika familiak egiten dute.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A ZARAUZKO LUDOTEKA

Ikasturte berria hasi dute Zarauzko *Xakapon* ludotekan. Bertan Haur Hezkuntzako 4. mailatik Lehen Hezkuntzako 4. mailara arteko ikasleek aukera izango dute aisialdia euskaraz bizitzeko. Astelehenetik ostiralera zabalitzen dute ludoteka, 16:00etatik 19:30era. Gabonetan eta Aste Santuan, berriz, goizez irekitzen dute soilik. Ikasturte osorako izena emateak 85 euroko kostua du, eta bi zatitan ordain daiteke.

Interesa dutenek izena emateko, ludotekara (Iturribide, 24-26) bertaratu daitezke edo *Sorginmuño* begirale-taldearen web-orrira jo dezakete irailaren 30a bitartean.

<zarautz.org>

B GALDAKAOKO LUDOTEKA

Ludoteka Galdakaon bizi diren 3 eta 13 urte bitarteko hurrei dago zuzenduta. Parte-hartzaile guztiek izena eman beharko dute, ludotekaren funtzionamenduaren segimendua egin ahal izateko.

Ludoteka urtarriletik abendura egoten da zabalik, abuztuan izan ezik. Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

Gabonetako eta Aste Santuko opor-garaietan ordutegi hau izaten du: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Uztailari dagokionez, ludotekaren orde, hiri-udalekuen programa jartzen da martxan. Programazio erakargarria izaten da eta kanpoko ekintzak antolatzen dira gehienbat.

<galdakao.net>

C URDUÑAKO LUDOTEKA

Ikasturte honetako lehen lauhilabetean –2014ko urritik 2015eko urtarrilera–, ludoteka-zerbitzua egongo da berriz ere kultur etxean.

Izena eman ahal izango da irailaren 29tik urriaren 3ra bitartean ludotekan bertan (kultur etxeko beheko solairuan).

Ume bakar bat inskribatu nahi bada, 30 € ordaindu beharko dira; eta bi ume badira, berriz, 50 €. Taldeak adinaren arabera antolatuko dira era honetan:

Astelehenetan: Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. maila.

Astearteetan: Haur Hezkuntzako 3. maila.

Asteazkenetan: Haur Hezkuntzako 1. maila.

Ostegunetan: Haur Hezkuntzako 2. maila.

<urduna.com>

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

9.	Ordutegia moldatzeko aukera dago.
10.	Abuztuan itxita egoten da.
11.	Izena emateko web-orria erabil daiteke.
12.	Gabonetan eta Aste Santuan goizez eta arratsalde zabalik.
13.	Bi epetan ordaintzeko aukera dago.
14.	Kultur etxearen barruan dago kokatuta.
15.	Udalekuek ludoteka-zerbitzua ordezkatzeko dute.
16.	Ostiraletan ez dago ludoteka-zerbitzurik.
17.	Lehen Hezkuntzako 3. mailara arteko haurrak joan daitezke.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

BEGOÑA ECHEVERRIA MENDIBURU

Kalifornian jaiotako euskaldun hau Durangoko Liburu eta Disko Azokara heldu zen, «The Hammer of Witches» nobela eskuetan zuela.

18

Euskal Herrira, ez. Durangoko Azokara, bai. Etorri nintzen haurra nintzenean, sei urte nituela. Gero, berriz etorri nintzen hamahiru urterekin.

19

Bai. Gurasoak, Baztangoak, Orabidekoak. Aitaren etxea, Ansonea, lurrez Amaiurrekoa da. Amarena, Arnos, Lekarozkoa.

20

Aita joan zen lehenik Ameriketara, 1954an. Bazituen bi anaia jada hara joandakoak. Laugarren anaia joan zen nire aita joan eta hurrengo urtean. Gure aitak han sei urte pasatu zituen, etorri zen, nire amarekin ezkondu zen 1960an, eta han bizitzea pentsatu zuten.

21

Nire lehen hizkuntza izan zen. Euskaldunak ez gara horrenbeste Kalifornian, baina nahiko normala da han Baztango jendearen artean euskaraz aritzea. Euskara ikasi genuen lehenengo. Gero, hazi ginenean, eskolara joan eta ingelesa ikasi genuen.

22

Badago jende euskalduna hor, eta lehenago gehiago zegoen. Badugu klub bat, *Chino Basque Club*, ehun eta hogeit hamar familia dituen kide. Kluba gero eta txikiagoa da, baina badu euskal etxe txiki bat, nahiko bizia.

23

Biologia, Antropologia eta Soziologia. 1987an etorri nintzen lehenengo ikerketa egitera hona. Sei hilabete egin nituen Oxforden, eta hiru hilabete hemen. Orain hemen naiz beti, ikerketa egiteko, NOKArekin kantatzen, familia ikusten....

24

Etnografia-lana egiten hasi nintzen, euskararen eta etnikotasunaren arteko loturak bilatzen. Eta, horrekin batera, mitologiako pertsonaiak ere ari naiz ikertzen: Mari, lamiak, sorginak... Horien mundua ingelesera itzultzen ari naiz, gehiena ez baita ingelesera itzuli.

25

Bai, eta ez dakit ziur nola heldu nintzen horretara ere! Baztango jendearen artean ere beti dago sorginen istorioen bat! Askok ikasi dut.

ELUSTONDO, M. A.

Argia, 2015eko urtarrilaren 25a. Egokitua

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Ba al dago euskaldunik Los Angelesen inguruan?
- B. Zer helburu izan duzu liburua idatzi duzunean?
- C. Zer dela eta aztertzen dituzu mitoak eta kondairak?
- D. Sorginak ere agertzen dira zure nobelan, ezta?
- E. Gurasoak hemengoak dituzu eta amari eskaini nahi diozu liburua, ezta?
- F. Zer ikasketa dituzu eginda?
- G. Lehen aldia da Euskal Herrira etorri zarena?
- H. Zein da zuen familiaren historia?
- I. Nola ikasi zenuen euskara?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Herrian auzo berri bat eraiki dute. Gazte asko joan zarete bertara bizitzera. Auzoari zerbitzu batzuk falta zaizkio.
Udaletxera jo duzu, eta bertan inprimakia eman dizute betetzeko. Azaldu zer falta den auzoan eta egin zure eskaera.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Juanjok, zure lankideak, mezua idatzi dizu eta zer arazo duen azaldu dizu.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are buttons for "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". The "Norentzat:" field contains "Marian Agirre". Below it, there are links for "Gehitu Cc" and "Gehitu Bcc". The "Gai:" field contains "Arazoa: seme-alabak". There is a link for "Erantsi fitxategia". The email body contains the following text in green:

Egun on, Marian:

Etxetik idazten dizut; dakizunez, gaurko eguna libre hartu dut eta.

Arazo bat sortu zait: nire seme-alabak zaintzen zituen emakumeak beste lan bat aurkitu du eta gaurtik aurrera neuk eraman beharko ditut umeak eskolara. Beraz, beste norbait topatu arte, lanera beranduago sartuko naiz.

Gure arloan biok bakarrik gaudenez, moldatu egin beharko gara nola edo hala. Posible da, zure ustez, lehenengo orduko lana (adibidez: deiak, mezuak, fakturak, erosketak...) beste modu batean antolatzea? Zure proposamena bidali ahal didazu?

Ahal duzunean, erantzun, mesedez, nire arazoa konpondu arte nola moldatuko garen jakiteko.

Juanjo

■ Erantzun iezaiozu lankideari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «GOSEA SENDA DAITEKE»

1.	C	2.	A	3.	B
4.	C	5.	A	6.	A
7.	C	8.	B		

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «LUDOTEKAK»

9.	A	10.	B	11.	A
12.	B	13.	A	14.	C
15.	B	16.	C	17.	C

- **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.
- **Irakurgaia:** «BEGOÑA ECHEVERRIA MENDIBURU»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	G	E	H	I	A	F	C	D

Soberakoa	B
-----------	---